

ONARPEN PERTSONALERAKO GALDERA-SORTA

1 - Etsaitasun-kurba. 4. fasean, aurre egite-fasean:

- A. Fase horretan esku hartu behar da. Une horretan esaten denak egoera lasaitzen lagunduko du.
- B. Pertsonak indar handiz erreazionatzen jarraitzen du, liskarra sorrarazi nahian.
- C. Pertsonari aurrez aurre begiratu behar zaio, erronka joz bezala.
- D. Sumindu den pertsona hori oker zegoela erakutsi behar da.

2 - Tornikete bat jartzekotan, non jarri behar da?:

- A. Beste gorputz-adarrean jarri behar da, hemorragiarekin kontaktuan ez egoteko.
- B. Gorputz-adarraren sustraian, bihotzaren aurkako aldean eta zauriaren ertzetik 5-10 cm-ra.
- C. Gorputz-adarraren sustraian, zauri irekiaren eta bihotzaren artean eta zauriaren ertzetik 5-10 cm-ra.
- D. Hemorragia gertatu den eremuan eta torniketea eremu hori estaltzeko moduan jarritz.

3 - Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 52. artikulua arabera, hemezortzi urtetik gorakoak muturreko indarkeria duten borroka edo konbateko kirol-jardueren lehiaketetara (Nazioarteko Batzorde Olimpikoak edota Estatuko zein autonomia-erkidegoko kirolfederazioek onartu gabeak) sartu ahal izango dira.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

4 - Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, bertaratzen den jendearen adina egiaztatzeko, nortasun agiri nazionalaz (NAN) gain, zein beste dokumentu balio dute adina egiaztatzeko?

- A. Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ).
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Gidabaimenak.
- D. Pasaportea.

5 - Zaurien tratamendua. Zauri bat dagoenean, zeri eman behar zaio lehentasuna?

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Eskularruak erabiltzeari.
- C. Odol-jarioa eteteari eta infekzioa prebenitzeari (zauria garbitu).
- D. Zauria estaltzeari.

6 - Pertsona politraumatizatu baten lehen mailako balorazioan:

- A. Arnasbideak, aireztapena eta zirkulazioa nola dabiltzan begiratzen da.
- B. Burua gorputz-enborrarekin lerrokatuta dagoen begiratzen da.
- C. Pertsonaren identifikazioa egiaztatzen da.
- D. Zauri irekiak dituen begiratzen da.

7 - Biktima shockean sartuz gero, hau egin behar da:

- A. Zauritua shockaren aurkako posizioan kokatu behar dugu, salbu eta bizkarrezurmuineko lesioa egon daitekeela sumatzen bada.
- B. Zauritua shockaren aurkako posizioan kokatu behar dugu.
- C. Tornikete bat erabili bada, gehiago estutu behar da.
- D. Erantzun guztiak zuzenak dira.

8 - Fase hauetako zein da bigarren fasea politraumatismoak jasan dituen pertsonari ematen zaion laguntzaren barruan?

- A. 112ra deitzea, arnasbidea irekitzea, laguntza eskatzea.
- B. Abisua berrikustea.
- C. Eragindakoak estimuluei erantzuten dien ala ez begiratzea.
- D. Eszena berrikustea

9 - Hemorragiaren sintoma orokorra:

- A. Egarria.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Estimulu mingarriei erantzutea.
- D. Lepo zurruna.

10 - Luzatze-asetiboaren teknika:

- A. Argudioa behin eta berriz errepikatzean datza, galderei, zalantzei, txantajeei edo hertsapenei erantzun gabe.
- B. Baieztapen erasokorraren erantzuna berehala eman beharrean, lasaiago dagoen une batera arte itxarotean datza.
- C. Beste pertsonari arrazoiaren zati bat ematean datza, gero nork bere jarrera argi eta garbi adierazteko.
- D. Probokazioei ez-entzunarena egitean datza, doinu errepikakor bat kantatzen den bitartean.

11 - Gutxienez, zein edukiera izan behar du establezimendu batek, autobabes dokumentua izateko?

- A. 300 pertsona.
- B. 400 pertsona.
- C. 500 pertsona.
- D. 700 pertsona.

12 - Zer EZ da egin behar haserre edo suminduta dauden pertsonen aurrean?:

- A. Adi egoteari utzi, batez ere, ikuskizun motagatik, ordutegiagatik, ikuskizuneko publikoagatik etab. liskarrak sor daitezkeela aurreikusten den lokal eta ikuskizunetan.
- B. Ahots-doinu hurbila eta lasaia erabili.
- C. Buruarekin baiezko keinuak egin.
- D. Solaskideari begira jarri.

13 - Artista, interpretatzaile edo jotzaileen definizioa hau da:

- A. Ikuskizunak publikoari aurkezten dizkieten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, eta haien parte-hartzea ordaindua den edo ez gorabehera.
- B. Ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura aurkezten duten pertsonak, normalean publikorik gabe
- C. Ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura publikoari aurkezten dioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, eta parte-hartze hura ordaindua den edo ez gorabehera.
- D. Lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.

14 - Gizarte- eta ingurumen arloko faktoreek pertsonen erreakzioen gainean eragina daukate.

- A. Egia.
- B. Gezurra.
- C. Pertsonak alkoholaren eraginpean daudenean baino ez.
- D. Pertsonak alkoholaren, drogen edo substantzia psicotropikoen eraginpean daudenean baino ez.

15 - Etsaitasun-kurba. 2 fasean, ateratze- edo jaurtitze-fasean:

- A. Azkar jarduteko unea da, egoera hoztu aurretik.
- B. Egoera horretan dagoen pertsonari ez zaio kasu egin behar.
- C. Pertsona horri ez zaio barrua askatzen utzi behar.
- D. Une horretan ez zaio probokazioari erantzun behar eta autokontrola erabili behar da.

16 - Bizkortze batean, konpresioen eta arnasaldien maiztasuna hau izan behar da:

- A. 15 konpresio/ arnasaldi 1.
- B. 15 konpresio/2 arnasaldi.
- C. 30 konpresio/ arnasaldi 1.
- D. 30 konpresio/2 arnasaldi.

17 - Establezimenduen titularrek eta ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek sarrera ukatu behar diete eta bertan egotea eragotzi, baldin eta armak edo arma bezala erabiltzeko moduko objektuak badaramatzate, salbu eta Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak badaude edo bizkartzain pribatuak beren egitekoetan, edota eramateko baimenduta badaude, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudi espezifikoan zehaztutakoarekin bat.

- A. Egia
- B. Gezurra

18 - Zauri abdominaletarako tratamendua:

- A. Biktimari ez zaio jaten ez edaten eman behar.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- D. Komeni da biktimari likidoa ematea, fluido gastrikoen ihesik ez dagoela egiaztatzeko.

19 - Hemorragia benosoaren ezaugarriak:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Odola etengabe ateratzen da eta odolaren kolorea gorri iluna izaten da.
- C. Odola gorri distiratsua izaten da eta aldizkako zurrustez ateratzen da.
- D. Odola gutxika ateratzen da.

20 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Biktima Shock egoeran dagoen baloratzeko:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Azazkaletan kapilar-eskasia dagoen begiratzen da
- C. Biktimak arnasa hartzen duen begiratu behar da.
- D. Kanpoko odol-jario garrantzitsuak begiratu behar dira.

21 - Aurreikus daitezkeen arriskuetaarako baliabidea:

- A. Behin eginda agortzen diren ekitaldi puntualetarako erabiltzen da.
- B. Egiten da ikuskizunaren edo jardueraren edukiera 100 pertsonatik beherakoa denean.
- C. Espazio irekietan baino ez da erabiltzen.
- D. Ez da autobabes-plan bat bezain inportantea.

22 - Debekatuta dago 18 urtetik beherakoak leku hauetan sartzea:

- A. Joko-establezimenduak eta -lokalak, beren araudi espezifikokoaren arabera.
- B. Zuzeneko proiektzio, erakustaldi edo emanaldiak pornografikoak edo muturreko indarkeriakoak diren erakustareto bereziak.
- C. Dantzalekuak, dantzalekuak eta diskotekak, adingabeentzako saioak egiteko baimena duten dantzaleku edo diskoteketarako edo gazte-aretoetarako xedatutakoari kalterik egin gabe.
- D. Aurreko guztiak zuzenak dira.

23 - Zein ordura arte sartu ahal dira 16 urtetik beherakoak edari alkoholdunak zerbitzatzen dituzten taberna berezietan, pub eta disko-tabernetan, beti ere gurasoek edo pertsona arduradunak lagunduta?

- A. 21:00ak arte
- B. 22:00ak arte
- C. 23:00ak arte
- D. Ezin dira inola ere sartu

24 - Sar daiteke haurtxo bat bere gurdian joko-areto batera?

- A. Bai.
- B. Aterperako euria ari duenean bakarrik.
- C. Inola ere ez.
- D. Bai, baldin eta gurasoekin etortzen bada.

25 - Onartzeko eta egoteko baldintza espezifikoak onarpen-baldintzei buruzkoak izan daitezke.

- A. Egia
- B. Gezurra

26 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Aireztapenaren balorazioan:

- A. Arnas-maiztasuna eta arnasteko zailtasuna begiratu behar dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Lokalaren baldintzak begiratu behar dira.
- D. Odol-zirkulazioa begiratu behar da.

27 - Sarrera ukatzeko eskubidea aplikatuta, baldintza espezifikoak hauei buruzkoak izan daitezke:

- A. Lokalean, esparruan, ikuskizunetan edo jolas jardueran janaria edo edaria kontsumitzeko mugak.
- B. Sartzeko mugak adinaren arabera.
- C. Sartzeko mugak edukiaren arabera.
- D. Sartzeko mugak orientazio sexualaren arabera.

28 - Zauriaren tamainagatik beharrezkoa izanez gero, hemorragia geldiarazteko apositu hemostatiko bat baino gehiago erabiliko dira.

- A. Berdin du.
- B. Egia.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Gezurra.

29 - Torniketea erabiltzeak arazoak eragin ditzake?

- A. Bai, askatu daitekeelako.
- B. Bai, gorputz-adar bat anputazio kirurgikoz galtzea eragin dezake.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Ez, ez da arriskutsua.

30- Toraxa zulatzen duen zauri bat:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- C. Neumotoraxa eragin dezake, pleura-barrunbean aire-pilaketa, eta horrek larritasunmaila desberdinak izan ditzake.
- D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.

31 - Establezimenduen titularrek eta ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek sarrera ukatu behar diete eta bertan egotea eragotzi, modu erasokorrean portatzen badira edo jokaera bortitzak azaltzen badituzte, ikusle edo erabiltzaileei enbarazu egin diezaieketenak edo ikuskizuna edo jardueraren bilakaera normala eragozten dutenak.

- A. Egia
- B. Gezurra

32 - Ikuskizunaren edo jolas-jardueraren prezioak jartzea, noren eskubidea da?

- A. Administrazioarena.
- B. Antolatzaileak eta ikusleak ados jarrita, ezartzen dira.
- C. Antolatzailearena.
- D. Ikuslearena.

33 - Zer da urrezko ordua?

- A. Biktimak ospitalean igarotzen dituen lehen hirurogei minutuak dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Lehen hirurogei minutuak izaten dira, intzidentea gertatzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan zehar helburua da heriotza-tasa murriztea, horretarako itzulgarriak izan litezkeen lesioak tratatuz.
- D. Lehen hirurogei minutuak izaten dira, intzidentea gertatzen denetik kontatzen hasita. Denbora-tarte horretan istripua izan duen pertsona bakarrik utzi behar da.

34 - Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 52. artikulua arabera, hemezortzi urtetik beherakoak, adin nagusikoek lagunduta, eduki erotiko esplizitua daukaten ikuskizun edo jolas jardueretan sartu ahal izango dira.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

35 - Hemorragia kapilarraren ezaugarriak:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Odola etengabe ateratzen da eta odolaren kolorea gorri iluna izaten da.
- C. Odola gorri distiratsua izaten da eta aldizkako zurrustez ateratzen da.
- D. Odola gutxika ateratzen da.

36 - Potentzialki arriskutsuak diren egoerak, objektiboki arriskurik gabeak izan arren, beldurraren eragileztat hartzen dira:

- A. Egia.
- B. Gezurra.

37 - Titularrek edo antolatzaileek onartzeko eta egoteko baldintza objektibo espezifikoak ezarri ahal izango dituzte, sarrera onartzeko eskubideari edo ukatzekoari jarraikiz.

- A. Egia
- B. Gezurra

38 - Etsaitasun-kurba. 5.fasean, hozte-fasean:

- A. "Lasaitu edo poliziari deituko diot" bezalako espresioak erabili behar dira.
- B. Aurre egite-fasearen ondorengoa da; pertsonari ulertzen zaiola adieraztea lortu bada eta pertsona horrek ulertu badu, hitz egin ahal izango da.
- C. Fase horretan ez da esku hartu behar. Une horretan esaten denak egoera zailtzeko baino ez du balio izango.
- D. Pertsonak indar handiz erreakzionatzen jarraitzen du, liskarra sorrarazi nahian.

39 - Ostalaritza-establezimenduak ordutegi-talde hauen barruan egon daitezke:

- A. Edozein talde.
- B. I, II eta III
- C. II eta III
- D. III eta IV

40 - Establezimendu, lokalean, ikuskizun edo jolas jarduera baten onartzeko baldintzak non agertu behar dira?

- A. Erreklamazio-orrietan.
- B. Establezimendu publikoaren, instalazioaren edo leku irekiaren sarreran, txartelak saltzeko kanal eta saltokietan eta ikuskizunari edo jolas-jarduerari buruzko publizitatean edo propagandan, toki ageri batean.
- C. Ez dago horietaz aldezturik informatzeko betebeharra.
- D. Ondo irakurtzeko moduko toki batean.

41 - Terrazetako ordutegia hau izaten da:

- A. Terraza daukan establezimenduaren ordutegi bera izango dute.
- B. Terrazak neguan 20:00etan itxiko dute eta udan 22:00etan.
- C. Terrazek ez dute ordutegirik izaten.
- D. Udalak gaikuntza tituluan ezartzen duena.

42 - Hau autokontrolerako teknika bat da:

- A. Arnasa sakon hartzea: arnasa sakon eta luze hartu behar da hainbat aldiz, airea abdomeneraino eramanez.
- B. Aurreko guztiak zuzenak dira.
- C. Azaleko arnasketa, arnasa azkar hartu behar da burmuinean dagoen oxigenoaren bolumena handitzeko.
- D. Gorputz-enborraren flexioak: gorputz-enborra hainbat aldiz tolestu behar da, arnasa kontrolatuz.

43 - Ekitaldia puntuala bada eta aldi baterako instalazio batean egiten bada, ADAB egingo da:

- A. Edukiera 100 eta 300 pertsona bitartekoa bada.
- B. Edukiera 2500 pertsonatik gorakoa bada.
- C. Edukiera 300 eta 2500 pertsona bitartekoa bada.
- D. Edukiera 300 pertsonatik beherakoa bada.

44 - Hemorragia kapilarraren ezaugarriak:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Odola etengabe ateratzen da eta odolaren kolorea gorri iluna izaten da.
- C. Odola gorri distiratsua izaten da eta aldizkako zurrustez ateratzen da.
- D. Odola gutxika ateratzen da.

45 - Buruko zauri motak:

- A. Alde bigunei eragin diezaiekete edo hausturak izan daitezke.
- B. Alde erdi-zurrunei eragin diezaiekete.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Odol-jarioa kontrolatu behar da pertsona hori ahoz gora jarriz.

46 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez da aitzakia izango diskriminaziorik egiteko sexuagatik

- A. Egia
- B. Gezurra

47 - Emozioak kontrolatu ahal izateko, aldez aurretik identifikatu behar dira. Erreakzio afektiboko patroi bereizgarri eta orokor batzuk badaude eta horien arabera gizaki guztiok ezaugarri komun batzuk erakusten ditugu.

- A. Egia
- B. Gezurra

48 - Noiz tartekatu behar dira bihotz-masajea eta intsufrazioak?:

- A. 100 eta 120 konpresioen artean.
- B. Behar den prestakuntza izanez gero eta gai izanez gero, 30 konpresio egin ondoren.
- C. Beti, 120 konpresio egin ondoren.
- D. Beti, 30 konpresio egin ondoren.

49 - Hemorragiaren sintoma orokorra:

- A. Egardia.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Estimulu mingarriari erantzutea.
- D. Lepo zurruna.

50 - 277/2010 Dekretuaren arabera, autobabesa hau da: jardueren titularrek -izan publikoak, izan pribatuak- beren eskumenen alorrean, beren bitartekoak eta baliabideak erabiliz abian jarritako ekintzen eta hartutako neurrien sistema, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitu eta kontrolatzeko; hala badagokio, erkidegorako ezinbestekoak diren zerbitzuen berrezarpena eta jarraipena lortzen saiatzeko; gerta daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun egokia emateko, eta ekintza horiek babes zibileko sistema publikoan integratzen direla bermatzeko.

- A. Egia
- B. Gezurra

51 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Odoletan badago, ez da zauria estali behar.
- C. Odol-jarioa "en sábana" deritzona bada, ez da zauria estali behar.
- D. Presazko laguntza medikoa behar dute.

52 - Haserre eta suminduta dauden pertsonen aurrean zer egin:

- A. Egoera kontrolatu ezin baduzu, segurtasun-tarte bat ezarri eta balizko ihesbidetik ahalik eta hurbilen jarri, erasotzailearen aurrez aurre.
- B. Hitzeko indarkeria argia eta zuzena badago, probokazioei erantzun behar zaie mugak markatzeko.
- C. Hitzeko indarkeria argia eta zuzena ez badago, ez dago arazorik.
- D. Hitzeko mehatxu fin eta ezkutuko baten aurreran, hobe da konturatu zarela adieraztea eta zuzeneko eraso azkartzea.

53 - Zauri arinen tratamendua:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Zauria zurrustaka garbitu ur garbiarekin edo serum fisiologikoarekin, egon litezkeen gorputz arrotzak kentzeko.
- C. Zaurian ez ibili eta ez garbitu.
- D. Zauritua shockaren aurkako jarreran ipini.

54 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Bigarren mailako balorazioa etengo da eta biktima berehala lekualdatuko da, baldin eta:

- A. Biktimaren ahots-bolumena jaisten bada.
- B. Biktimaren erreflexuak txikitzen badira.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Konorte-maila txikitzen bada.

55 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea aitzakia izan daiteke diskriminazioa egiteko arrazagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

56 - Autobabes plan batek zer helbide-zerrenda mota jaso behar du?

- A. Arriskuena
- B. Establezimenduko titularrena.
- C. Jardueraren deskribapenarena.
- D. Komunikaziorako helbideena

57 - Jendurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, diskoteketan egiten diren adingabeentzako saioetan baimenduta dago?

- A. Edariak kontsumitzea.
- B. Joko-makinak eta -sistemak ustiatzea.
- C. Tabakoa kontsumitzea.
- D. Tabakoa saltzea.

58 - Establezimendua ixteko ezarrita dagoen ordua helduta, hauetako zein neurri hartu behar da?

- A. Argiak itzaltzea.
- B. Lokalaren barruan dauden erabiltzaileak lokaletik ateratzea, gehienez, 15 minutuan.
- C. Lokalaren barruan dauden erabiltzaileak lokaletik ateratzea, gehienez, 20 minutuan.
- D. Lokalean sartzeko ateak ixtea eta erabiltzaile potentzialei sartzen ez uztea.

59 - Jendurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, zer da sarrera ukatzeko eskubidea?

- A. Edukiera beteta dagoenean, titularrak sartzen ez uzteko daukan betebeharra
- B. Erantzun bat ere ez da zuzena.
- C. Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek duten ahalmena jendea onartzeko eta bertan egoteko baldintza objektiboak ezartzeko.
- D. Pertsona zehatz batzuei sartzen ez uzteko aukera.

60 - Pultsua non aurki daiteke?:

- A. Begietan.
- B. Hatz-mamietan.
- C. Karotidan.
- D. Kopetan.

61 - Zauri abdominalak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Barruko edota kanpoko odol-jarioa egon daiteke.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.

62 - Onartzeko eta egoteko baldintza espezifikoak animaliak sartzeari buruzkoak izan daitezke.

- A. Egia
- B. Gezurra
- C. Ikuslea sartu ahal izango da agertokian edo ikuskizunaren eremuan:
- D. Beti

63 - Ikuskizunean aurreikusita dagoenean parte hartzeko aukera egongo dela.

- A. Inoiz ez
- B. Sarrera berezi bat ordaintzen duenean.

64 - Hemorragia kontrolatzeko apositu hemostatikoak erabiltzea:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- C. Tornikete bat egitean datza.
- D. Zuzeneko presioaren bidez kanpoko hemorragia larri bat kontrolatu ezin denean erabiltzen dira.

65 - Simulazioak egitearen helburua zein da?

- A. Anomalian jakinaraztea.
- B. Antolakuntza-egitura hierarkiko bat ezartzea.
- C. Idatzitako autobabes plana berrikustea.
- D. Larrialdi baten aurrean, erantzuna antolatzeko modua eraginkorra dela egiaztatzea.

66 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Shock egoeran egotearen adierazle bat hau izan daiteke:

- A. Arnasarik ez egotea.
- B. Azal zurbil eta hotza.
- C. Begi gorrituak eta lausoak.
- D. Erantzun guztiak zuzenak dira.

67 - Odola barra-barra darion zauri ireki bat badago, zer egin behar da?

- A. Biktima konorte-egoeran mantendu behar da.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Odol-jarioa eten behar da tornikete bat eginez.
- D. Odol-jarioa eten behar da, zauria estaliz eta zauriaren gainean konpresioa eginez.

68 - Hauetako zein EZ da Ikusleen eta erabiltzaileen eskubidea?:

- A. Errespetuzko tratua jasotzeko eskubidea: ez arbitrarioa, ez diskriminatzailea.
- B. Ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eskubidea, eta publizitate horrek okerreko iritzirik edo iruzurra eragin dezakeen informaziorik ez izateko eskubidea.
- C. Kanpoan eragina daukaten zaratak edo eragozpenak sortzea.
- D. Zerbitzu orokorrak erabiltzeko eskubidea, enpresak jarraibide eta arau partikularretan ezarritako moduan eta muga berekin.

69 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea aitzakia izan daiteke diskriminazioa egiteko desgaitasunagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

70 - Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?

- A. Alarma-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea
- B. Ate bikoitzeko atondo akustikoen behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.
- C. Ateak desblokeatzeko behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea
- D. Larrialdi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea

71 - Bihotz-biriketako gelditze baten ondoren, noiz hasten da garuna kaltetzen?

- A. Oxigeno-faltatik ordu erdira.
- B. Oxigenorik ezak ez du garunean inolako eraginik izaten.
- C. Oxigenorik gabe geratu eta handik 30 minutura.
- D. Oxigenorik gabe geratu eta handik 4-5 minutura.

72 - Pub eta taberna berezien ixteko ordu orokorra hau da:

- A. 01:00a.
- B. 02:30ak
- C. 04:30ak.
- D. 23:00ak.

73 - Onarpen-zerbitzuko langileek edari alkoholdunak hartu ahal dituzte, beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean?

- A. Alkohola edan dezakete, baina ezin dituzte drogak kontsumitu, ezta substantzia psikotropikoak ere.
- B. Bai, egoerak hala eskatzen badu.
- C. Bai.
- D. Ez.

74 - Toraxa zulatzen duen zauri bat:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- C. Hemotoraxa eragin dezake, pleura-barrunbean odol-pilaketa, eta horrek larritasunmaila desberdinak izan ditzake.
- D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.

75 - Barruko hemorragiak:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Ezin dira kanpotik ikusi, edozein organo egon daiteke odoletan, zuzeneko traumatismo baten ondorioz zein gaixotasun baten ondorioz.
- C. Zintzilikario itxurakoak dira eta substantzia galtzea eragiten dute.
- D. Zuzenean kanpora ateratzen dira eta beti zauri batekin batera daude.

76 - 16 urtetik beherakoak edari alkoholdunak zerbitzatzen dituzten establezimendu publiko itxietan sartu ahal izango dira, baldin eta?

- A. Adin nagusiko batekin badaude.
- B. Edari alkoholdunik kontsumitzen ez badute.
- C. Ezin dira inola ere sartu.
- D. Gurasoekin edo pertsona arduradunekin badaude.

77 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea aitzakia izan daiteke diskriminazioa egiteko generoidentitateagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

78 - Toraxa zulatzen duen zauri bat:

- A. Alde bigunei baino eragiten ez badiete, urarekin eta xaboiarekin tratatu behar dira.
- B. Barrunbe torazikoaren ehun bigunei bakarrik eragin diezaieke, neumotoraxa edo hemotoraxa eragin dezake, eta berehala hiltzea eragingo duen bihotzeko eta hodietako lesio bat eragin dezake.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.

79 - Zauri arinen tratamendua:

- A. Azaleko zauriak badira, egokia da zauria urez eta xaboez garbitzea.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Zaurian ez ibili eta ez garbitu.
- D. Zauritua shockaren aurkako jarreran ipini.

80 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Biktima Shock egoeran dagoen baloratzeko:

- A. Azazkaletan kapilar-eskasia dagoen begiratzen da
- B. Biktimak arnasa hartzen duen begiratu behar da.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Kanpoko odol-jario garrantzitsuak begiratu behar dira.

81 - Torniketea erabiltzeak arazoak eragin ditzake?

- A. Bai, askatu daitekeelako.
- B. Bai, gorputz-adarraren gangrena eta iskemia eragin ditzake.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Ez, ez da arriskutsua.

82 - Establezimenduen titularrek ezin dute inoiz sarrera ukatu, ezta bertan egotea eragotzi ere.

- A. Egia
- B. Gezurra

83 - Kanpoko laguntzarako irisgarritasun-baldintzak hemen adierazten dira:

- A. Arriskuen analisisan eta ebaluazioan eta inbentarioan.
- B. Autobabes planaren ezarpenean.
- C. Instalazioak mantentzeko programan.
- D. Jardueraren eta ingurune fisikoaren deskribapen zehatzean.

84 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez da aitzakia izango diskriminaziorik egiteko erlijioagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

85 - Zauri abdominalak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Barruko edota kanpoko odol-jarioa egon daiteke.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.

86 - Udal baimenaren bidez jai-egunetarako onartutako ordutegi-luzapenak kontuan hartu gabe, diskotekek, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, ostiral, larunbat eta jai-bezperetan, ordu honetara arte ireki ahal izango dute:

- A. 02:30ak.
- B. 03:00ak.
- C. 04:00ak.
- D. 06:30ak.

87 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, bertaratzen den jendearen adina egiaztatzeko, nortasun agiri nazionalaz (NAN) gain, zein beste dokumentu balio dute adina egiaztatzeko?

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Liburutegi-txartela.
- C. Osasun-txartela.
- D. Pasaporte.

88 - Noiz utzi behar zaio BBB egiteari?

- A. Biktimarengan bizi-zeinurik ikusten ez denean.
- B. Erantzun bat ere ez da zuzena.
- C. Nekatuta zaudenean.
- D. Une batez ere ez, laguntza kualifikatua heldu arren ere jarraitu behar da, ez baita masajearen maiztasuna aldatu behar.

89 - Nork egin behar du autobabes-plana?:

- A. Eusko Jaurlaritzak
- B. Kasuan kasuko udalak
- C. Lokalaren jabeak
- D. Teknikari eskudun batek

90 - Shocka zer da?:

- A. Burmuinean airerik ez izatearen egoera.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Giza gorputzaren egoera, ehunetan behar beste odol jasotzen ez duenean eta, beraz, organoetara behar den oxigenoa heltzen ez denean.
- D. Hemorragia daukatenak egoten diren izu-egoera.

91 - Zauri arinen tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Zauria oso azalekoa bada eta odolletan ez badago, ez da estali behar.
- C. Zaurian ez ibili eta ez garbitu.
- D. Zauritua shockaren aurkako jarreraren ipini.

92 - Gabonetan, udalek establezimendu publikoetarako ezarrita dagoen ixteko ordutegi orokorra luzatu ahal dute:

- A. Abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra bitartean.
- B. Abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean
- C. Abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra bitartean
- D. Abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitartean

93 - Establezimenduen titularrek eta ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek sarrera ukatu behar dute eta bertan gotea eragotzi, edukiera beteta badago.

- A. Egia
- B. Gezurra

94 - Uztailean, laneguna den ostegun batean, zein da diskotekak ixteko ordutegi orokorra?

- A. 03:30ak.
- B. 04:00ak.
- C. 04:30ak
- D. 05:00ak

95 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Arnasbidearen erabileraren balorazioan:

- A. Pertsona hori konortetik gabe badago eta arnasa hartzen ez badu, 112ra deituko dugu.
- B. Pertsona hori konortetik gabe badago eta arnasa hartzen ez badu, BBB egiten hasi behar da, arnasbideak butxatuta ez daudela egiaztatu ondoren.
- C. Pertsona hori konortetik gabe badago, 112ra deituko dugu.
- D. Pertsona hori konortetik gabe badago, arnasa hartzeko gai den galdetuko diogu.

96 - KDEA izanez gero, zein da prozedura?

- A. Norbait bidali 112ra deitzera eta KDEA ekartzera; KDEA heldu bitartean, bizkortze maniobrak egin behar dira.
- B. Norberaren, biktimaren eta egon litezkeen oinezkoen segurtasuna ziurtatu behar da, BBG antzeman eta KDEAren bila joan.
- C. Norberaren, biktimaren eta egon litezkeen oinezkoen segurtasuna ziurtatu behar da, BBG antzeman, norbait 112ra deitzera eta KDEA bilatzera bidali behar da, eta KDEA heldu bitartean, bizkortze maniobrak egin behar dira.
- D. Norberaren, biktimaren eta egon litezkeen oinezkoen segurtasuna ziurtatu behar da, BBG antzeman, norbait 112ra deitzera eta KDEA heldu arte itxaron.

97 - Titularrek eta antolatzaileek agintaritza eskudunek erabakitako ikuskapen-lanak egiten uzteko betebeharra daukate?

- A. Antolatzaileek bai, baina titularrek ez.
- B. Bai
- C. Ez
- D. Titularrek bai, baina antolatzaileek ez.

98 - Asertibitatea hau da:

- A. Beste pertsona batzuen borondateari men egiteari uko egitea.
- B. Nork bere ikuspuntua azaltzea beste pertsona batzuen borondatearen aurretik.
- C. Nork bere ikuspuntua azaltzea, beste inori erasotu gabe eta beste batzuen borondatearen mende jarri gabe.
- D. Nork bere ikuspuntua inposatzea, eta beste batzuen borondatearen mende ez jartzea.

99 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, joko-establezimendu eta joko-lokaletan sartzen eta egoten uzteko, gutxieneko adina zein da?:

- A. 16 urte, baldin eta adinez nagusi den batekin badaude.
- B. 16 urte.
- C. 18 urte.
- D. 21 urte.

100 - Labankada baten aurrean, komeni da labana erauztea?

- A. Bai.
- B. Ez.
- C. Labanaren xafla nolakoa den.
- D. Labankada non dagoen.

101 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Arnasbidearen erabileraren balorazioan:

- A. Pertsona hori konortetik gabe badago, 112ra deituko dugu.
- B. Pertsona hori konortetik gabe badago, arnasa hartzeko gai den galdetuko diogu.
- C. Pertsona hori konortetik gabe badago, arnasbidea iragazkortu behar zaio, beharrezkoa bada
- D. Pertsona hori konortetik gabe badago, BBB egin behar da.

102 - Hemorragia kontrolatzeko apositu hemostatikoak erabiltzea:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- C. Tornikete bat egitean datza.
- D. Zuzeneko presioaren bidez kanpoko hemorragia larri bat kontrolatu ezin denean erabiltzen dira.

103 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak adingabeen babesa ezartzen du eta horretarako, hainbat ikuskizun publiko, jolas jarduera eta establezimendu publikoetara sartzea mugatzen die.

- A. Egia
- B. Gezurra

104 - Hemorragia arterial batean:

- A. Odola etengabe ateratzen da.
- B. Odola gorri distiratsua izaten da
- C. Odola iluna izaten da.
- D. Odola urria izaten da.

105 - Anputazioetarako tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Hesteak kanpoan badaude, komeni da biktimari likidoa ematea, fluidoan ihesik ez dagoela egiaztatzeko.
- C. Hiltzeko arriskurik ez badago, ez dira lesio larriak.
- D. Zauri larriak balira bezala tratatu behar dira; odol-jarioa tornikete batekin kontrolatu behar da eta anputatutako gorputz-atala gorde.

106 - Zein da biziraupen-katearen ordena zuzena?

- A. BBG antzematea eta 112ra deitzea; lekukoek BBB azkarra egitea, desfibrilazio azkarra, bizi-euskarri aurreratua eta bizkortzearen ondorengo zainketak.
- B. BBG antzematea; lekukoek BBB azkarra egitea eta desfibrilazio azkarra.
- C. Istripua izan duen pertsonari arreta ematea, ambulanzian sartzea eta ospitalera eramatea.
- D. Istripua izan duen pertsonari arreta ematea, profesionalei deitzea eta pertsona ospitalera eramatea.

107 - Torniketea erabiltzean, hauxe hartu behar da kontuan:

- A. Behin jarrita, ez da laxatu behar, ezta lekuz aldatu ere.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Gogor estutzea da garrantzizkoena.
- D. Jarri ondoren, lekuz aldatu ahal da.

108 - Shocka zer da?:

- A. Burmuinean airerik ez izatearen egoera.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Giza gorputzaren egoera, ehunetan behar beste odol jasotzen ez duenean eta, beraz, organoetara behar den oxigenoa heltzen ez denean.
- D. Hemorragia daukatenak egoten diren izu-egoera.

109 - Ikuskizun publiko edo jolas jarduera batean edaria edo janaria kontsumitzeari edo aparatu elektronikoak edo beste mota bateko objektuak sartzeari mugak jartzea sartzea eta bertan egotea onartzeko baldintza objektibo espezifiko bat da.

- A. Egia
- B. Gezurra

110 - Establezimendu publikoaren titularraren definizioa hau da:

- A. Erantzun bat ere ez da zuzena.
- B. Ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura publikoari aurkezten dioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, eta parte-hartze hura ordaindua den edo ez gorabehera.
- C. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egin edo bultzatzen dituzten pertsonak, fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.
- D. Lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsona juridikoak, irabazteko asmoarekin edo asmorik bat.

111 - Hemorragia kontrolatzeko zuzeneko presioaren mekanismoa:

- A. Apositu hemostatiko bat erabiltzean datza.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- D. Tornikete bat egitean datza.

112 - Potentzialki arriskutsuak diren egoerak beldurraren eragiletzat hartzen dira:

- A. Egia.
- B. Gezurra.

113 - Sartzen eta egoten uzteko baldintza objektiboak eta sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez dira aitzakia izango bereizketarik egiteko erabiltzaileen jatorri edo jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi, desgaitasun, sexu-orientazio edo genero-identitatea dela-eta edo erabiltzaileen egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta.

- A. Egia
- B. Ez da garrantzitsua.
- C. Gezurra
- D. Sexuarengatik, bereizkeriak egin daitezke.

114 - Noiz erabili ahal da torniketea?:

- A. Edozein hemorragia motatan.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Erreskateetan edo asistentzia heltzen zaila den egoeretan, gorputz-adarretako hemorragia gogor/ertainen kasuetan.
- D. Zauriaren odol-jarioa eteten ez denean.

115 - Establezimendu publikoaren, instalazioaren edo leku irekiaren sarreran, toki ageri batean eta ondo irakurtzeko moduan jarriko da zer jarraibide ezarri den ikuskizuna edo jolasjarduera normal garatzeko.

- A. Egia
- B. Gezurra

116 - Establezimendu publiko batek desfibriladore bat edukitzeko, establezimendu horren gutxieneko edukiera hau izan behar da:

- A. 1000.
- B. 700.
- C. 800.
- D. 900

117 - Titularrak edo antolatzaileak eragotzi ahal izango du establezimenduan janaria edo edaria sartzea.

- A. Egia
- B. Gezurra

118 - Emozioen autokontrola:

- A. Besteen emozioak kontrolatzea lortzeko gaitasuna da.
- B. Besteen emozioak kontrolatzeko gaitasuna da.
- C. Gaitasun bat da, edozein gertaeraren, egoeraren edo pentsamenduren aurrean, emozioak zein horiek gure jokabidearekin daukaten erlazioa identifikatzeko gaitasuna, hain zuzen.
- D. Nork bere burua kontrolatzeko eta arrisku-egoeretan ezer ez egiteko gaitasuna da.

119 - Titulartasun publikoko establezimenduetan herritarrak informatzeko eta instalazioak mantendu eta kontrolatzeko funtzioak bere esku dituzten udal langileek beteko dituzte manu honetan aurreikusitako funtzioak, gaikuntza jasotzeko edo onarpen-zerbitzuko langile gisa erregistratzeko beharrik gabe.

- A. Egia
- B. Gezurra

120 - Hauetako zein agertzen da edukieraren definizioaren barruan?

- A. Antolaketaren zerbitzuko langileak.
- B. Bertaratutakoak eta jarduleak.
- C. Ebakuaziorako langileak.
- D. Publikoa.

121 - Zer esan nahi dute KDEA siglek?

- A. Kanpoko desfibriladore erdiautomatikoa.
- B. Kanpoko desfibriladorea eragindakoari arreta emateko.
- C. Kanpoko dispositibo automatikoa.
- D. Kanpoko dispositiboa ezbeharrei aurre egiteko.

122 - Irisgarritasun unibertsalari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetara egokitzea establezimendu publiko, ikuskizun eta jolas-jarduerak

- A. Horrelako betebeharririk ez dago.
- B. Ikusleen eta erabiltzaileen betebeharra da.
- C. Jarduerekin erlaziorik ez duten pertsonen betebeharra.
- D. Titularen eta antolatzaileen betebeharra da.

123 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Eragindako eremua apositu esteril batekin estali behar da.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
- D. Odol-jarioa kontrolatu behar da pertsona hori ahoz gora jarriz.

124 - Etsaitasun-kurbaren 1. fasea:

- A. Ateratzea edo jaurtitzea da: pertsonak bere emozioak aske uzten ditu.
- B. Aurre egitea da.
- C. Maila arrazionala da, pertsonen ohiko egoera. Egoera horretan pertsonak elkarreragin dezakete eta arazoak konpon ditzakete.
- D. Moteltzea da, emozioak aske utzi ondoren lasaitzea.

125 - Politraumatismoak dituen zauritu bat badago, nola hurbildu behar dugu biktimarengana?

- A. Beti gainetik pasatu behar da.
- B. Ez da haren gainetik pasatu behar, haren ingurutik baizik, estropezu egin eta haren gainean ez erortzeko.
- C. Ez dugu neurri berezirik hartu behar, edozein aldetatik igaro ahal gara.
- D. Haren gainetik pasatu behar dugu, biktima ohartaraz dadin laguntza jasotzen ari dela.

126 - Hemorragia kontrolatzeko torniketea erabiltzea:

- A. Azken baliabidetzat hartu behar da eta biktimaren bizitza arriskuan dagoenean baino ez da erabili behar.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- D. Horiek zaurian sartzea da eta bi minututik bostera bitartean presioa egitea.

127 - Hemorragia bat tratatzean, eskularruak erabiltzea:

- A. Ahal bada, latexeko edo horren antzeko beste material bateko eskularruak erabili behar dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Ez da beharrezkoa.
- D. Nahitaezkoa da.

128 - Onartzeko eta egoteko baldintza espezifikoak edaria kontsumitzeko mugei buruzkoak izan daitezke.

- A. Egia
- B. Gezurra.

129 - Establezimendu publikoaren titularraren definizioa hau da:

- A. Edozein establezimendu ustiatzen duten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.
- B. Lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.
- C. Lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.
- D. Lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, soilik irabazteko asmoarekin.

130 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, bertaratzen den jendearen adina egiaztatzeko, nortasun agiri nazionalaz (NAN) gain, zein beste dokumentu balio dute adina egiaztatzeko?

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Gidabaimena.
- C. Liburutegi-txartela.
- D. Osasun-txartela.

131 - Biktima shockean sartuz gero, hau egin behar da:

- A. Konortetik gabe badago, segurtasuneko albo-posizioan kokatu behar da, mingainak ez diezaion aireari sartzen eragotzi.
- B. Zauritua shockaren aurkako posizioan kokatu behar dugu.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Tornikete bat erabili bada, askatu behar da.

132 - Titularrek edo antolatzaileek behar diren neurriak hartu beharko dituzte, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera modu egokian garatzeko.

- A. Egia
- B. Gezurra

133 - Hemorragiak dituen biktima bat badago, tratatzeko orduan lehentasuna da norberaren segurtasuna ziurtatzea, gero biktimaren segurtasuna ziurtatzea eta gero bizitza arriskuan jartzen duten hemorragiak kontrolatzea.

- A. Egia
- B. Gezurra

134 - Zein da martxoko ostegun lanegun batean karaoke-jarduera duen pub bat ixteko ordutegi orokorra?

- A. 01:00a
- B. 02:00ak.
- C. 02:30ak.
- D. 03:00ak.

135 - Onarpen-zerbitzuko langileek ez diete lokalean edo instalazioan sartzen utzi behar sarreramugatzeko orokorreko kasuren batean dauden pertsoneri.

- A. Egia
- B. Gezurra

136 - Ixteko ordua heldutakoan, musika, ikuskizuna, errepresentazioa, emanaldia, proiektzioa edo jarduna amaituko da, baita erabiltzaileei zerbitzu emateko lokalean izan litekeen edozer soinu-iturri ere; eta ateak itxiko dira.

- A. Egia
- B. Gezurra

137 - Shockaren, sinkopearen eta komaren arteko desberdintasuna.

- A. Shock egoeran dagoen subjektua kontziente dago, baina baliteke obnubilatuta, asaldatuta eta eldarniotan egotea. Pultsuak azkarrak eta ahulak dira.
- B. Koma batean konortea galtzea luzea eta sakona da. Pultsuak presente daude.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. . Sinkopea bada, konortea galtzea laburra da. Pultsuak presente daude, baina ahulak dira.

138 - Noiz erabili ahal da torniketea?:

- A. Edozein hemorragia motatan.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Gorputz-adar baten anputazio traumatikoaren eta zapaltze-sindromearen kasuan.
- D. Zauriaren odol-jarioa eteten ez denean.

139 - Jardueraren edukiera kontrolatzea nori dagokio?:

- A. Onarpen-zerbitzuko langileei.
- B. Segurtasuneko zaintzaileari.
- C. Txartel-leihatilako langileei.
- D. Udaltzainei.

140 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Shock egoeran egotearen adierazle bat hau izan daiteke:

- A. Arnasarik ez egotea.
- B. Begi gorrituak eta lausoak.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Takikardia.

141 - Titularrek edo antolatzaileek ezin dituzte onartzeko eta egoteko baldintza objektibo espezifikoak ezarri, sarrera onartzeko eskubideari edo ukatzekoari jarraikiz.

- A. Egia
- B. Gezurra

142 - Zauri makatuak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.
- D. Trakzio edo luzatze batek eragindakoak dira. Zauri horien ezaugarriak dira ertzen arteko tarte handia, irregulartasuna eta ertzak bereizita.

143 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez da aitzakia izango diskriminaziorik egiteko sexuorientazioagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

144 - Zauri arinen tratamendua:

- A. Azaleko zauriak badira, egokia da zauria eta xaboez garbitzea.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Zaurian ez ibili eta ez garbitu.
- D. Zaurituz shockaren aurkako jarreran ipini.

145 - Egiteko hauetako zein EZ dagokie onarpen-zerbitzuko langileei?:

- A. Ate bikoitzeko atondo akustikoei behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.
- B. Desgaitasuna duten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizunez eta jardueraz irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintzetan gozatu ahal izango dutela bermatzea.
- C. Kontrolatzea ikus-entzuleen kopuruak ez duela inoiz gehieneko edukiera gainditzen eta, ondorioz, ez uztea ikus-entzule gehiagori sartzen.
- D. Sarreretan ordena publikoaren nahasmenduak gertatuz gero, segurtasun pribatuko langile gisa jardun.

146 - Titularrek edo antolatzaileek betebeharrak hau daukate:

- A. Aplikatu beharreko araudian jasotzen den moduan erantzutea dena delako ikuskizuna edo jolas-jardueran antolatu eta burutzearen ondorioz sortutako kalte-galerengatik.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ez baimentzea, ezta toleratzea ere, lege honek aurreikusitako arau-hausterik egitea, ez ikuskizun edo jardueran parte hartzen dutenei, ez menpean dituztenei, ezta ikusle edo erabiltzaileei ere.
- D. Jendeari sartzen uztea, salbu legez edo erregelamenduz zehazten diren kasuetan.

147 - Zauriaren tamainagatik beharrezkoa izanez gero, hemorragia geldiarazteko apositu hemostatiko bat baino gehiago erabiliko dira.

- A. Berdin du.
- B. Egia.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Gezurra.

148 - Bihotz-biriketako balizko gelditze baten aurrean, istripua izan duen pertsonak estimuluei erantzuten EZ diela ikusiz gero, zer egin behar da?

- A. Arriskurik ez badago, dagoen posizioan utzi eta zer gertatzen den aztertu behar da.
- B. BBB posizioan jarri eta arnasbidea ireki behar zaio.
- B. Erabiltzaileen tipologia.
- C. Larrialdietako langileak.
- D. Prebentziozko mantenimendua.

427 - Ikuskizunaren publizitatean edo propagandan hauxe agertu behar da:

- A. Antolatzailearen eginkizunak.
- B. Erreklamazio-orriak.
- C. Ikuskizuna garatzeko jarraibideak.
- D. Sartzeko gehieneko adina.

428 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Shock egoeran egotearen adierazle bat hau izan daiteke:

- A. Arnasarik ez egotea.
- B. Begi gorrituak eta lausoak.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Takikardia.

429 - Prozesu emozionalari buruzko teoriak diote erreakzio afektiboko patroi bereizgarriak eta orokorrak daudela eta gizaki guztiengan hainbat ezaugarri komunekin agertzen direla.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

430 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, finkatu behar dira, biktima lekualdatzean mugi ez daitezen, eta biktimaren barruan kalte gehiago eragin ez dezaten.
- C. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
- D. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, ur oxigenatua bota behar da, horiek errazago atera ahal izateko.

431 - Autobabes-planak hauek jaso behar ditu:

- A. Establezimenduan gaueko ordutegian egiten diren jarduerak.
- B. Establezimenduan sarrien egiten diren jarduerak.
- C. Gaikuntza-tituluan aurreikusitako jarduera guztiak.
- D. Urtean gutxienez 10 aldiz egiteko programatuta dauden jarduerak.

432 - Titularrek eta antolatzaileek betebeharrak hau daukate:

- A. Betetzea kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko araudian ezarritako betebeharrak.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Lizentzia eta baimen edo bestelako gaikuntza-tituluen titularren identitatea eta helbidea aldatuz gero, horren berri ematea administrazio eskudunei erregelamendu bidez ezartzen den epean.
- D. Segurtasun- edo zaintza-zerbitzuak edukitzea lege honetan ezarritakoari jarraikiz nahitaezkoa denean.

433 - Zeintzu dira onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak?

- A. Bezeroak bide publikora janari-edariarekin irten daitezela eragozteak.
- B. Establezimenduetako sarreretan sortzen diren liskarrak konpontzea.
- C. Lokalak baldintza akustiko egokiak dituela zaintzea.
- D. Pertsonak lokalean edo instalazioan normaltasunez sartzen direla ziurtatzea.

434 - Hauetako zein da bihotz biriketako gelditze baten adierazle argia?

- A. Agonia-ahokadak.
- B. Begi-niniak dilatatuta.
- C. Eztula.
- D. Gorputz-adar hotzak.

435 - Animaliak ikuskizun publiko edo jolas jarduera batean sartzea ikuskizun edo jolas jardueran sartzen eta bertan egoten uzteko baldintza objektibo espezifiko bat da.

- A. Egia
- B. Gezurra

436 - Ikusleek eta erabiltzaileek ikuskizun eta jolas-jarduerari buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eskubidea daukate, eta publizitate horrek okerreko iritzirik edo iruzurra eragin dezakeen informazio ez izateko eskubidea.

- A. Egia
- B. Gezurra

437 - 14 urtetik gorakoak eta 18 urtetik beherakoak dantzaleku, dantza-areto eta diskoteketan sartu ahal izango dira.

- A. Adingabekoentzako saioetan.
- B. Ezin dira inoiz sartu.
- C. Gurasoek lagunduta.
- D. Ondo portatzen badira.

438 - Toraxa zulatzen duen zauri bat:

- A. Alde bigunei baino eragiten ez badiete, urarekin eta xaboiarekin tratatu behar dira.
- B. Barrunbe torazikoaren ehun bigunei bakarrik eragin diezaieke, neumotoraxa edo hemotoraxa eragin dezake, eta berehala hiltzea eragingo duen bihotzeko eta hodietako lesio bat eragin dezake.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.

439 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea aitzakia izan daiteke diskriminazioa egiteko erabiltzaileen egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

440 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Aireztapenaren balorazioan:

- A. Arnas-maiztasuna eta arnasteko zailtasuna begiratu behar dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Lokalaren baldintzak begiratu behar dira.
- D. Odol-zirkulazioa begiratu behar da.

441 - Haserre eta suminduta dagoen pertsona baten aurrean, jarrera edo jokabide hauetako bat ekidin behar da:

- A. Begietara luze begiratzea.
- B. Buruarekin baiezkoko keinuak egitea.
- C. Harremanetan jartzen hastea horrelako esaldiak erabiliz: "esan niri", "zertan lagundu ahal dizut?".
- D. Solaskideari aurrez begiratzen jartzea.

442 - Asertibitate-teknika bat, disko marratuaren teknika:

- A. Argudioa behin eta berriz errepikatzean datza, galderei, zalantzei, txantajeei edo hertsapenei erantzun gabe.
- B. Baieztapen erasokorrari erantzuna berehala eman beharrean, lasaiago dagoen une batera arte itxarotean datza.
- C. Beste pertsonari arrazoiaren zati bat ematean datza, gero nork bere jarrera azaltzeko.
- D. Probokazioei ez-entzunarena egitean datza, doinu errepikakor bat kantatzen den bitartean.

443 - Ordena berrezartzeko edozein esku-hartze eragin dezakeen gertaera txikienaren aurrean, onarpen-zerbitzuko langileek:

- A. Beren kabuz jardun behar dute, inori abisatu gabe.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Ezin dute beren kabuz jardun eta segurtasuneko zerbitzuari edo ordena publikoko indarrei abisatu beharko diete.
- D. Segurtasuneko-langileek bezala jardun behar dute eta pertsona horiek establezimendutik kanpora bota behar dituzte.

444 - Zauri arinen tratamendua:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Lerro baten itxura duten horiek (lerro zuzena, kurbatua, izarra, etab.)
- D. Zauri horietan azal zati bat gorputzetik guztiz bereizita dago.

445 - Establezimenduen titularrek eta ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek ez dute sarrera ukatu behar edo bertan egotea eragotzi, irekitzeko ordua baino lehen eta ixteko ordua igaro ondoren.

- A. Egia
- B. Gezurra

446 - Zauri larriak hauek dira:

- A. Azaleko ebaki eta zauriak, organo edo hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Hodi garrantzitsuei eragiten ez dieten zauriak.
- D. Infektatutako zauriak.

447 - Dantzalekuek edo diskotekek adingabeentzako saioak egin ditzakete eta horietan, hamalau urtetik gorakoak eta hemezortzi urtetik beherakoak sartu eta egon ahal izango dira, eta gutxienez baldintza hauek bete behar dira:

- A. Aurreko guztiak zuzenak dira
- B. Debeekatuta dago edari alkoholodunik edo tabakorik ematea edo saltzea.
- C. Establezimendu publiko horiek irekita daudenean, ezin da joko-makinarik edo sistemarik ustiatu.
- D. Ezin izango da ikuskizunik egin, apaingarririk jarri edo propagandarik egin adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen badute.

448 - Esan daiteke emozioak jokabidea gidatzen duela.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

449 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, hamasei urtetik beherakoek debeekatuta daukaten pub eta disko-tabernetan sartzea?

- A. Bai, beti.
- B. Bai, salbu adin nagusikoekin daudenean eta 23:00ak arte.
- C. Bai, salbu adin nagusikoekin daudenean, alkoholik kontsumitu barik eta 22:00ak arte.
- D. Ez, sartzeko ez dute inolako mugarik.

450 - Hemorragia bat tratatzean, eskularruak erabiltzea:

- A. Ahal bada, latexezko edo horren antzeko beste material bateko eskularruak erabili behar dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ez da beharrezkoa.
- D. Nahitaezkoa da.

451 - Etsaitasun-kurba. 3.fasean, moteltze-fasean.

- A. "Mesedez, niri ez hitz egin horrela" bezalako espresioak erabili behar dira.
- B. Entzunaldi aktiboa egiten jarraitu behar da eta pertsonari adierazi behar zaio entzuten ari zaiola, aurrez aurre begiratu (erronka jo gabe).
- C. Pertsonak indar handiz erreakzionatzen jarraitzen du, suminak ematen dion energiari esker.
- D. Une horretan bertan konponbidea bilatu behar da, gehiago itxaron gabe.

452 - Politraumatizatuarentzako protokoloa. Biktima Shock egoeran dagoen baloratzeko:

- A. Azalaren kolorea eta tenperatura begiratu behar dira.
- B. Biktimak arnasa hartzen duen begiratu behar da.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Kanpoko odol-jario garrantzitsuak begiratu behar dira.

453 - Titularrek edo antolatzaileek zein neurri hartu ahal dituzte?

- A. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera modu egokian garatzea eragozten duten neurriak.
- B. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera modu egokian garatzeko beharrezkoak direnak.
- C. Minusbaliatuei ikuskizunera edo jolas jarduerara sartzen ez uzteko neurriak.

454 - Shockaren kausak hauek izan daitezke:

- A. Biktimaren egoera mentala.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Lokalean argirik ez egotea.
- D. Tentsio arteriala txikitzea.

455 - Tornikete komertzial bat izan ezean:

- A. Alanbre edo kordoi bat erabil daiteke.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Ezin izango da torniketearen teknika erabili.
- D. Tornikete bat inprobisa daiteke, material bigun, indartsu eta malgua erabiliz.

456 - Helduei BBB egitean, non behar dira konpresioak?

- A. Abdomenaren beheko partean egin behar da presioa.
- B. Bularrezurraren behealdeko erdialdean egin behar da presioa.
- C. Bularrezurraren goiko partean egin behar da presioa.
- D. Saihetsetan egin behar da presioa.

457 - Ikusleek eta erabiltzaileek errespetatu behar dute ikuskizun eta jolas-jardueretako establezimenduetan ez erretzeko debekua, horri buruz indarrean den araudian aurreikusitako baldintzetan.

- A. Egia
- B. Gezurra

458 - Hauetako zein da ikusleen betebeharra?:

- A. Eragozpenak salatzea.
- B. Hasiera- eta amaiera-ordutegia errespetatzea.
- C. Jotzaileen antzezlekura sartzea.
- D. Prezioa ezartzea.

459 - Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren 15/2015 Legearen printzipio gidari bat hau da:

- A. Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan animaliak ez erabiltzea.
- B. Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliak eta haien ongizatea babesteko baldintzak bermatzea.
- C. Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliek albaitarritzaazterketa bat pasatzea.
- D. Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan pertsonak eta animaliek batera parte ez hartzea.

460 - Adingabeak, beren gurasoekin edo pertsona arduradunekin joan arren, ezin izango dira muturreko indarkeria duten borroka edo konbateko kirol-jardueren lehiaketa edo exhibizioetara sartu, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak edota Estatuko zein autonomiaerkidegoko kirol-federazioek onartu gabeak badira.

- A. Egia
- B. Gezurra

461 - Antolatzaileek beraien mende daudenek egiten dituzten arau-hausteen aurrean:

- A. Beti izaten dute erantzukizuna.
- B. Erantzukizuna daukate baldin eta antolatzaileen errua bada, bestela ez.
- C. Erantzukizuna daukate, baldin eta haien mende daudenek lan-kontraturik ez badaukate.
- D. Ez daukate inolako erantzukizunik.

462 - Ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleek edo ekitaldi horietara joaten direnek eta establezimendu publikoetako bezeroek betebeharrak haur daukate: enpresak ikuskizuna edo jarduera garatzeko ezartzen dituen jarraibide edo arau partikularrak betetzeko.

- A. Egia
- B. Gezurra

463 - Kasino baten ixteko ordu orokorra:

- A. 01:00a
- B. 02:30ak
- C. 04:30ak
- D. 23:00ak

464 - Odola barra-barra darion zauri ireki bat badago, zer egin behar da?

- A. Biktima konorte-egoeran mantendu behar da.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Odol-jarioa eten behar da tornikete bat eginez.
- D. Odol-jarioa eten behar da, zauria estaliz eta zauriaren gainean konpresioa eginez.

465 - Etsaitasun-kurba. 2 fasean, ateratze- edo jaurtitze-fasean:

- A. Azkar jarduteko unea da, egoera hoztu aurretik.
- B. Egoera horretan dagoen pertsonari ez zaio kasu egin behar.
- C. Pertsona horri bere haserrea ateratzen eta bere barrua askatzen utzi behar zaio.
- D. Une horretan probokazioari erantzun behar zaio, autokontrola erabiliz.

466 - Torniketea erabiltzeak arazoak eragin ditzake?

- A. Bai, askatu daitekeelako.
- B. Bai, gorputz-adarraren gangrena eta iskemia eragin ditzake.
- C. Erantzun guztiak okerrak dira.
- D. Ez, ez da arriskutsua.

467 - Etsaitasun-kurba. 4. fasean, aurre egite-fasean:

- A. Erakutsi behar da sumindu den pertsonari entzun eta ulertu zaiola.
- B. Fase horretan ez da esku hartu behar. Une horretan esaten denak egoera zailtzeko baino ez du balio izango.
- C. Pertsonak indar handiz erreakzionatzen jarraitzen du, liskarra sorrarazi nahian.
- D. Pertsonari aurrez aurre begiratu behar zaio, erronka joz bezala.

468 - Frustrazioa eragiten duten baldintzak suminaren eragiletzat jotzen dira.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

469 - Formaren araberako sailkapenean, zauri linealak hauek dira:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Lerro baten itxura duten horiek (lerro zuzena, kurbatua, izarra, etab.)
- D. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.

470 - Tornikete komertzial bat izan ezean:

- A. Alanbre edo kordoi bat erabil daiteke.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ezin izango da torniketearen teknika erabili.
- D. Tornikete bat inprobisa daiteke, material bigun, indartsu eta malgua erabiliz.

471 - Establezimenduen titularrek eta antolatzaileek ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eskubidea daukate, eta publizitate horrek okerreko iritzirik edo iruzurra eragin dezakeen informaziorik ez izateko eskubidea.

- A. Egia
- B. Gezurra

472- Beldurrak kontrol-galeraren sentsazioa eragin dezake.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

473 - Bihotz-biriketako gelditze batean, burmuina kaltetzearen arrazoa hau izaten da:

- A. Airerik ez egotea.
- B. Burmuinean oxigenorik ez egotea.
- C. Konortetik gabe egotea.
- D. Pultsurik ez izatea.

474 - Hemorragia kontrolatzeko apositu hemostatikoak erabiltzea:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- C. Tornikete bat egitean datza.
- D. Zauria zuzeneko presioa egiterik ez dagoen leku batean (esaterako, lepoa, abdomena edo iztondoa) kokatuta dagoenean erabiltzen dira.

475 - Zauri ebakiak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Objektu ebakitzailiek sortutakoak dira eta horien ezaugarria da zauriaren ertzak garbiak eta erregularrak izan ohi direla. Odola darien zauriak dira.
- D. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.

476 - Legearen printzipio gidarietako bat da pertsonen eskubideak errespetatzea, eta hirugarrenei bermatzea garatzeko eta bizikidetzaren normalizatua izateko eskubidea.

- A. Egia
- B. Gezurra

477 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, finkatu behar dira, biktima lekualdatzean mugitu ez daitezela, eta biktimaren barruan kalte gehiago eragin ez dezaten.
- C. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
- D. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, ur oxigenatua bota behar da horiek errazagoa atera ahal izateko.

478 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
- C. Odol-jarioa kontrolatu behar da eta shocka prebenitu, zauriaren kokapenaren arabera zauritua jarrera egokienean jartzeko.
- D. Odol-jarioa kontrolatu behar da pertsona hori ahoz gora jarritz.

479 - Larritasun-mailaren arabera, zauriak honela sailkatzen dira:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Zauri ebakiak, zauri makatuak, objektu ziztakariak sortutako zauriak eta eraztearen ondoriozko zauriak.
- C. Zauri larriak eta zauri arinak.
- D. Zauri linealak, zintzilikario itxurako zauriak eta substantzia galtzea eragiten duten zauriak.

480 - Zauritua shock-egoeran badau horrela jarri behar dugu:

- A. Ahoz behera etzanda eta hankak igota.
- B. Ahoz gora etzanda eta burua igota.
- C. Ahoz gora etzanda eta hankak igota.
- D. Eserita.

481 - Hemorragia kontrolatzeko torniketea erabiltzea:

- A. Azken baliabidetzat hartu behar da eta biktimaren bizitza arriskuan dagoenean baino ez da erabili behar.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
- D. Horiek zaurian sartzea da eta bi minututik bostera bitartean presioa egitea.

482 - Toraxa zulatzen duen zauri bat:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- C. Neumotoraxa eragin dezake, pleura-barrunbean aire-pilaketa, eta horrek larritasunmaila desberdinak izan ditzake.
- D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.

483 - Egoki iritzitako neurriak hartzea, jendearentzat irekitako establezimenduak, ikuskizunak edo jarduerak segurtasunez eta kalitatez funtzionatuko duela bermatzeko:

- A. Administrazioaren eskubidea da.
- B. Antolatzailearen eskubidea da.
- C. Ikuslearen eskubidea da.
- D. Inork ez dauka neurri horiek hartzeko eskubidea.

484 - Titularrek eta antolatzaileek betebeharrak hau daukate:

- A. Agintaritza eskudunek erabakitako ikuskapen-lanak egiten uztea, eta lanok egiten laguntzea.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.
- D. Une oro eduki beharko dituzte establezimenduak eta instalazioak akatsik gabe funtzionatzeko moduan, eta aplikatzekoa zaien araudian aurreikusten diren frogak egin beharko dizkiete.

485 - Sarreretan ordenaren nahasmenduak gertatuz gero:

- A. Onarpen-zerbitzuko langileek antolatzaileari jakinarazi behar diote.
- B. Onarpen-zerbitzuko langileek ez dute ezer egingo.
- C. Onarpen-zerbitzuko langileek ordena berrezarri behar dute.
- D. Onarpen-zerbitzuko langileek segurtasun pribatuko langileei jakinaraziko diete edo, segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, Euskadiko polizia kidegoei jakinaraziko diete zuzenean, dagozkien eskumenak erabiliz.

486 - Jendaurreko ikuskizunaren eta jolas-jardueraren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 52. artikulua arabera, hemezortzi urtetik beherakoak, adin nagusikoek lagunduta, aisialdi erotikoko establezimenduetan sartu ahal izango dira.

- A. Egia
- B. Gezurra

487 - Formaren araberako sailkapenean, zauri linealak hauek dira:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Lerro baten itxura duten horiek (lerro zuzena, kurbatua, izarra, etab.)
- D. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.

488 - Onarpen-zerbitzuko langileen egikizunetako bat da bezeroei ohartaraztea edariekin ezin direla kanpora atera.

- A. Egia
- B. Gezurra

489 - Shockaren sintomak hauek dira:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Interbentzio kirurgikoak.
- C. Intoxikazioak.
- D. Zianosiak mukosetan eta ezpainenetan.

490 - Hemorragiaren sintoma orokorra:

- A. Bertigoak, ikusmen lausoa, baita konortea galtzea ere.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Estimulu mingarriari erantzutea.
- D. Lepo zurruna.

491 - Titularrak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea

- A. Antolatzaileari dagokio.
- B. Onarpen-zerbitzuko langileen egitekoa da.
- C. Poliziaren egitekoa da.
- D. Segurtasun pribatuko langileen egitekoa da.

492 - Jendearentzat irekitako establezimendu araubide berezikoak dira herritarren bizikidetzari, segurtasunari edo osasunari biziago eragin diezaieketen establezimenduak.

- A. Egia
- B. Gezurra

493 - Buruko zauriak:

- A. Alde erdi-zurrunei eragin diezaiekete.
- B. Bakarrik alde bigunei eragiten diete.
- C. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- D. Horiekin batera, entzefaloko lesio bat ere gerta daiteke.

494 - Hauetako zein EZ da antolatzaileen betebeharra?

- A. Bermatzea antolatutako ikuskizunera joan edo jolas-jardueran parte hartu nahi duten pertsona guztiek egin ahal izango dutela, horretarako behar beste saio emanaz.
- B. Funtzionatzeko egoera ezin hobean mantentzea beti establezimendu eta instalazioak, eta indarrean den araudiaren arabera egin beharreko egiaztapenak egitea.
- C. Jendaurreko ikuskizunik edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.
- D. Segurtasun- eta osasungarritasun-arloko neurri guztiak hartzea, baita zaratak neurtzeko oro har ezartzen direnak edo dagozkien lizentzia edo baimenetan berariaz ezartzen direnak ere.

495 - Onarpen-zerbitzuko langileek ez dute armarik eta haien eginkizuna ez da segurtasuna eta ordena zaintzea, ez dute establezimenduaren segurtasuna babestu behar, ez delituak ekidin behar eta ezin zaie mehatxu-egoerei aurre egiteko eskatu, pertsona normal bati eskatu ahal zaionetik haratago.

- A. Egia
- B. Gezurra

496 - GAAB (Gorputz arrotz batek arnasbidea buxatzea) gertatuz gero, zein da prozedura?

- A. Biktimari bizkarrean kolpe indartsuak eman behar zaizkio behin eta berriz, salbu eta adingabea bada.
- B. Biktimari bizkarrean kolpe indartsuak eman behar zaizkio behin eta berriz.
- C. Denbora galdu gabe, Heimlich maniobra egin behar da.
- D. Larritasun maila zein den aztertu behar da, buxatzea arina dela ikusiz gero, eztula egitera animatu eta ikusi buxatzea desagertzen den.

497 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, dantza-aretoetan eta diskoteketan sartzen eta egoten uzteko, gutxieneko adina zein da?

- A. 14 urte, baldin eta baldintza zehatz batzuk betetzen badira.
- B. 16 urte, baldin eta baldintza zehatz batzuk betetzen badira.
- C. 16 urte.
- D. 18 urte.

498 - Toraxa zulatzen duten zaurietarako tratamendua:

- A. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- B. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- C. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.
- D. Zauria airearekiko iragazgaitzak diren txaplatekin estali behar da eta zauritua shockaren aurkako jarreran ipini behar da.

499 - Pertsonen adina egiaztatzea:

- A. Antolatzailearen eginkizuna da.
- B. Onarpen-zerbitzuko langileen eginkizuna da.
- C. Segurtasun pribatuko langileen eginkizuna da.
- D. Segurtasuneko langileen eginkizuna da.

500 - Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen aplikazio eremutik kanpo daude hauek:

- A. Biltzeko eta manifestatzeko eskubidea gauatzeko asmoz antolatutako jarduerak.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ospakizun erlijiosoak.
- D. Ospakizun familiar eta sozial erabat pribatuak, jende guxtiarentzat ez direnak.

501 - Toraxa zulatzen duten zaurietarako tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- C. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.
- D. Zauria airearekiko iragazgaitzak diren txaplatekin estali behar da eta zauritua shockaren aurkako jarreran ipini behar da.

502 - Shock-a, sinkopea (zorabioa) eta komaren arteko desberdintasuna biktimaren konorteegoeran eta pultsuan datza.

- A. Egia
- B. Gezurra

503 - Torniketea ondo jartzeko:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Gogor estutzea da garrantzizkoena.
- C. Inoiz ez da belaunaren edo ukondoaren azpian jarri behar.
- D. Zauriaren gain-gainean jarri behar da, eta ez infektatzeko kontuz ibili behar da.

504 - Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?

- A. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, arduradunekin harremanetan jartzea neurriak hartzeko.
- B. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, atea ireki edukiera handitzeko.
- C. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, ikus-entzule gehiagori sartzen ez uztea.
- D. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, sarbideak ixtea.

505 - Edukieraren arabera ADAB edo autobabes-plana eskatuko da:

- A. Egia
- B. Gezurra

506 - Zauri arinak hauek dira:

- A. Azaleko ebaki eta zauriak, organo edo hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Hozkaden ondoriozko zauriak.
- D. Zauri zabal eta sakonak, odol-jario larria dutenak.

507 - Tornikete komertzial bat izan ezean:

- A. Alanbre edo kordoi bat erabil daiteke.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Ezin izango da torniketearen teknika erabili.
- D. Tornikete bat inprobisa daiteke.

508 - Ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleek edo ekitaldi horietara joaten direnek eta establezimendu publikoetako bezeroek betebeharrak hau daukate:

- A. Antolatzaileak jendea sartzeko eta onartzeko ezartzen dituen baldintza orokorrak betetzea, betiere legeak finkatutako mugen barruan.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ez erakustea indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten ikurrak, jantziak edo objektuak edo oinarritzko eskubideen kontrako apologia adierazten dutenak, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo bazterkeria sustatzen dutenak.
- D. Ez eramatea inolako armarik edota indarkeria eragiteko erabil daitezkeen bestelako objekturik.

509 - Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?

- A. Artistak eta haien talde teknikoak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizunez eta jardueraz irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokietan gozatu ahal izango dutela bermatzea.
- B. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta horretarako erreserbatuta dauden eserlekuetan ikuskizun eta jardueraz gozatu ahal izango dutela bermatzea.
- C. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizun eta jardueraz gainerako pertsona guztien baldintza berberetan gozatu ahal izango dutela bermatzea.
- D. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizunez eta jardueraz irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokietan gozatu ahal izango dutela bermatzea.

510 - Onarpen-zerbitzuko langileek erregelamenduzko kontrol eta ikuskapenak egitea ahalbidetu behar diete lan horiek egiten dituzten pertsoneri.

- A. Egia
- B. Gezurra

511 - Ikuskizuna hasita dagoenean sartzan ez uzteko aukera badago?

- A. Bai, adingabeak badira.
- B. Bai, baldin eta establezimenduan edo ikuskizunean onartzeko baldintza objektiboetan aukera hori jasota badago.
- C. Bai, beti.
- D. Ez, inola ere ez.

512 - Hemorragiaren sintoma orokorra:

- A. Astenia edo nekea.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Estimulu mingarriari erantzutea.
- D. Lepo zurruna.

513 - Ikusleek eta erabiltzaileek zerbitzu orokorrak erabiltzeko eskubidea daukate, enpresak jarraibide eta arau partikularretan ezarritako moduan eta muga berekin.

- A. Egia
- B. Gezurra

514 - Baieztapen hauetatik zein da emozio hitzaren definizio egokiena?

- A. Erantzun-jokabide zehatz bat eragiten duen esperientzia afektibo bat.
- B. Esperientzia aberasgarri bat.
- C. Esperientzia afektibo atsegina.
- D. Esperientzia afektibo desatsegina.

515 - Ikusle eta erabiltzaileek ordaindutako kopuruak berreskuratzeko eskubidea daukate:

- A. Ikuskizuna atzeratzen bada.
- B. Ikuskizuna haien gustukoa ez bada.
- C. Ikuskizunean edozein aldaketa badago.
- D. Iragarritako ikuskizuna edo jolas-jarduera funtsean aldatu edo bertan behera geratzen bada.

516 - Biktimak politraumatismoa eta lesio mekanismo garrantzitsu bat badauzka, bizkarrezurmuineko lesioa izan dezakeela sumatu behar da, hori hala ez dela egiaztatu arte.

- A. Egia
- B. Gezurra

517 - Defentsa pertsonala eraso baten aurrean norbera babesteko teknikak dira; autobabes pertsonala, ordea, prebentiboagoa da: ondorioak gutxitzeko eta arrisku egoeretatik ateratzeko taktikak barne hartzen ditu.

- A. Egia
- B. Gezurra

518 - Erauzteen ondoriozko zauriak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.
- D. Trakzio edo luzatze batek eragindakoak dira. Zauri horien ezaugarriak dira ertzen arteko tarte handia, irregulartasuna eta ertzak bereizita.

519 - Titularrek edo antolatzaileek baldintza objektibo espezifikoak ezarri ahal izango dituzte onartzeko eta egoteko, sarrera onartzeko eskubideari edo ukatzekoari jarraikiz.

- A. Egia.
- B. Egoteko baldintzak bai, baina onartzeko baldintzak ez.
- C. Gezurra
- D. Onartzeko baldintzak bai, baina egoteko baldintzak ez.

520 - Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek jendea onartzeko eta bertan egoteko baldintza objektiboak ezarri ahal dituzte.

- A. Bai
- B. Ez

521 - Shockaren sintomak hauek dira:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Interbentzio kirurgikoak.
- C. Intoxikazioak.
- D. Zapaltzeak.

522 - Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?

- A. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan, erantzun bateratu bat koordinatzeko.
- B. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, horien eginkizunak onarpen-zerbitzuak burutuko ditu.
- C. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoei jakinarazi behar diete, kidego horietako bakoitzaren eskumenen arabera.
- D. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, zuzenean udaltzainei jakinarazi behar diete.

523 - Hemorragiaren sintoma orokorra:

- A. Arnasketa azkarra eta azalekoa.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Estimulu mingarriari erantzutea.
- D. Lepo zurruna.

524 - Etsaitasun-kurba. 4. fasean, aurre egite-fasean:

- A. "Arazoa ulertzen dut" bezalako espresioak erabil daitezke, pertsona horri erakusteko bere alde zerbait egiten saiatzen ari dela.
- B. Fase horretan ez da esku hartu behar. Une horretan esaten denak egoera zailtzeko baino ez du balio izango.
- C. Pertsonak indar handiz erreakzionatzen jarraitzen du, liskarra sorrarazi nahian.
- D. Sumindu den pertsona oker zegoela erakutsi behar da.

525 - Oro har, metro bateko zabalera duen ebakuazio-bitarteko batetik. Zenbat pertsona ebakuatzen dira?

- A. 100 pertsona.
- B. 200 pertsona.
- C. 300 pertsona.
- D. 400 pertsona.

526 - Haserre eta suminduta dagoen pertsona baten aurrean, jarrera edo jokabide hauetako bat erakutsi behar da:

- A. Era konfliktiboan porta daitezkeen pertsonari edo egoerari bakarka aurre egin, eraso bat jasateko arriskua izan arren.
- B. Eskuei begia kendu edo balizko erasotzaileari bizkarra eman.
- C. Hitzeko erasoei erantzun, eta erasotzaileari aurre egin, iraindu, erronka jo edo erasotu.
- D. Solaskideari begira jarri.

527 - Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea:

- A. Abenduaren 23koa da.
- B. Azaroaren 8koa da.
- C. Urriaren 1ekoa da.
- D. Uztailaren 27koa da.

528 - Biktimak politraumatismoa eta lesio mekanismo garrantzitsu bat badauzka, bizkarrezurmuineko lesioa izan dezakeela sumatu behar dugu, hala ez dela egiaztatzen den arte.

- A. Egia da eta hori egiaztatzeko, pertsona horri altxatzeko eskatuko diogu.
- B. Egia.
- C. Gezurra.
- D. Hori bakarrik egia izaten da pertsona konorterik gabe badago.

529 - Establezimenduen eta bestelako ikuskizun eta jardueren amaiera-ordu orokorra luzatu ahal izango da, kasu hauetan:

- A. Aurreko guztiak zuzenak dira.
- B. Gehienez ere bi orduz udal-baimenagatik, Dekretu honen 37. artikuluan zehaztuta bezala.
- C. Ordu erdiz ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.
- D. Ordu eta erdiz ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan.

530 - Zauri abdominaletarako tratamendua:

- A. Biktimari ez zaio jaten ez edaten eman behar.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
- D. Komeni da biktimari likidoa ematea, fluido gastrikoen ihesik ez dagoela egiaztatzeko.

531 - Hau autokontrolerako teknika bat da.

- A. Aurreko guztiak zuzenak dira.
- B. Autorregulazioa: lasai zaudenean, kontrola galtzen duzun uneak antzematea eta idaztea da.
- C. Azaleko arnasketa, arnasa azkar hartu behar da burmuinean dagoen oxigenoaren bolumena handitzeko.
- D. Gorputz-enborrharen flexioak: gorputz-enborra hainbat aldiz tolestu behar da, arnasa kontrolatuz.

532 - Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek ez dute sartzen utzi behar

- A. Aurreikusten bada bezeroak indarkeriazko jokabideak izango dituela eta horiek ikuskizunaren garapen egokia eragotziko dutela.
- B. Edukiera aurreikusten den gehienezko mugara heldu ez bada.
- C. Edukiera beteta badago.
- D. Sartzeko onarpen-baldintzei buruzko informazioa ikusleen edo joan direnen eskura badago.

533 - Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez da aitzakia izango diskriminaziorik egiteko jatorriagatik edo jaiolekuagatik.

- A. Egia
- B. Gezurra

534 - Kasu batzuetan ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek sarrera ukatu beharko dute eta ez dute bertan egoten utzi behar.

- A. Egia
- B. Gezurra

535 - Udal langileek titulartasun publikoko establezimenduetan onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak betetzeko:

- A. Ez dute onarpen-zerbitzuko langile izateko gaikuntza lortu behar.
- B. Ezin dituzte eginkizun horiek inola ere bete.
- C. Onarpen-zerbitzuko langile izateko gaikuntza lortu behar dute.
- D. Onarpen-zerbitzuko langileen menpe egonda baino ezin dituzte bete.

536 - Sartzea eta bertan egotea onartzeko baldintza orokorra hau da:

- A. Adinez nagusia izatea.
- B. Erantzun bat ere ez da zuzena.
- C. Indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten ikurrak eramatea, edo oinarritzko eskubideen kontrako jardueren apologia adierazten dutenak.
- D. Nahitaezkoa den kasuetan, sarrera, abonamendua edo sartzeko beharrezkoa den bestelako titulua izatea.

537 - Zauri larriak hauek dira:

- A. Azaleko ebaki eta zauriak, organo edo hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira
- C. Hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak.
- D. Hozkaden ondoriozko zauriak.

538 - Diskoteka batean, zein ordu baino lehen ezin dira ikus-entzunezko edo musikako ekipoak funtzionamenduan egon, ezta dantzako pistak eta, oro har, zarata gogaikarriak eragin ditzakeen edozer jarduera egin?

- A. 11:00ak baino lehen.
- B. 11:30ak baino lehen.
- C. 12:00ak baino lehen.
- D. 12:30ak baino lehen.

539 - Noiz arte jarraitu behar da BBB egiten?

- A. Biktima laguntzarik gabe ibiltzeko gai izan arte.
- B. Hogei minutu pasatu arte.
- C. KDA heldu arte.
- D. Norbaitek gu ikusi eta laguntza eskatzen duen arte.

540 - Jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerak eta horiek egiten diren establezimendu edo leku publikoek baldintza hauek bete behar dituzte:

- A. Segurtasun- baldintzak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak
- B. Segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak
- C. Segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak, baita irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ere.
- D. Segurtasun-baldintzak baino ez

541 - Se define como titulares del establecimiento público:

- A. Las personas jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él.
- B. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten cualquier establecimiento, con ánimo de lucro o sin él.
- C. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él.
- D. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, sólo con ánimo de lucro.

542 - Udal ordenantzek eta II. taldeko ostalaritza-establezimendu baten gaikuntza-tituluak terraza ixteko ordurik ezartzen ez badute, eta udalak ordutegi-luzapenik edo ordutegi-murrizketarik eman ez badu. Zein da terraza ixteko ordutegi orokorra?

- A. 22:30ak.
- B. 23:00ak
- C. 23:30ak.
- D. 24:00ak.

543 - Jolas jardueren definizioa hau da:

- A. Arte, kultura, kirol edo antzekoekin zerikusia duen errepresentazio, erakusketa, jarduera, distrakzio edo proiektioetan jendea biltzen duen gertakari oro, antolatzaileek eskaintzen dutena edo, antolatzaileek eskatuta, artista, kirolari nahiz jotzaileek eskaintzen dutena lokal itxi edo ireki batean nahiz aire zabaleko edota bide publikoko esparruren batean edota instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan.
- B. Parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz 500 pertsona baino gutxiago biltzen dituzten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
- C. Parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
- D. Parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, helburu politiko edo erlijiosoak dituztenak.

544 - Zer esan nahi dute BBG siglek?

- A. Behin eta berriz agertzen den bihotzeko gaixotasuna.
- B. Bihotz-biriketako gaixotasun-arriskua
- C. Bihotz-biriketako gelditzea
- D. Biriketako balizko gaixotasuna

545 - Lehen laguntzak zauri bat dagoenean. Asepsia zer da?

- A. Botikineko produktu higieniko-sanitarioen multzoa da.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Gure esku-hartzearen ondorioz zauria kutsatu ez dadin hartzen diren neurrien multzoa da.
- D. Zauria estaltzera bideratutako neurrien multzoa da.

546 - Zauri larrien tratamendua:

- A. Erantzun guztiak okerrak dira.
- B. Odoletan badago, ez da zauria estali behar.
- C. Odol-jarioa "en sábana" deritzona bada, ez da zauria estali behar.
- D. Presazko laguntza medikoa behar dute.

547 - Ikuskizuna espero bezala ez garatzeak, eragina izan al dezake ikuskizunera bertaratu direnen portaeran?

- A. Bai.
- B. Ez.

548 - Onartzeko baldintza espezifikoak:

- A. Adina eta sexua dela eta diskriminatzaileak izan daitezke, baina ez arraza dela eta.
- B. Antolatzaileak ezarri ahal ditu, baina ez ditu zertan publiko egin.
- C. Ezin dira inoiz ezarri.
- D. Salmenta-puntu eta -kanaletan agertu behar dira.

549 - Hezurmuineko-lesioa egon daitekeela sumatzen bada:

- A. Eserita jarri behar dugu.
- B. Ez zaio laguntzarik emango.
- C. Laguntza emango zaio, baina zauritua mugitu gabe.
- D. Zauritua ahoz gora jarri behar dugu.

550 - Larrialdietan jarduteko prozedurek, gutxienez, zer bermatu behar dute?

- A. Alarma.
- B. Aldi baterako jarduera.
- C. Gertaera larriak ekiditeko kodeak.
- D. Instalazioen mantentze-lanetarako programa.

551 - Indarkeriazko egoerak konpontzea onarpen-zerbitzuko langileen eginkizuna da.

- A. Egia.
- B. Gezurra.

552 - Herriko jaiak direla eta, udalek ezarrita dagoen ixteko ordutegi orokorra luzatu ahal izango dute:

- A. Gehienez, bi orduz
- B. Gehienez, ordubetez.
- C. Gutxienez, bi orduz
- D. Gutxienez, ordubetez.

553 - Ikuskizun publikoen eta jolas jardueren antolatzaileak zer izan beharko du beti erabiltzaileen eskura?

- A. Aire girotua.
- B. Arropazaindegia.
- C. Berokiak gordetzeko kutxatilategiak.
- D. Erreklamazio-orriak.

554 - Etsaitasun-kurba. 2 fasean, ateratze- edo jaurtitze-fasean:

- A. Azkar jarduteko unea da, egoera hoztu aurretik.
- B. Ez da arrazoitzen saiatu behar, entzute aktiboa egin behar da eta pertsonak esaten duenari arreta jarri.
- C. Ez zaio pertsona horri barrua askatzen utzi behar.
- D. Probokazioari erantzuteko unea da, autokontrola erabiliz.

555 -Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?

- A. Ekitaldiaren titularrari edo antolatzaileari ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak erraztea.
- B. Euskal Autonomia Erkidegoko poliziari ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak erraztea.
- C. Funtzio horiek egiten dituzten pertsoneri ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak eragozte.
- D. Funtzio horiek egiten dituzten pertsoneri ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak erraztea.

556 - Haserre eta suminduta dagoen pertsona baten aurrean, jarrera edo jokabide hauetako bat erakutsi behar da:

- A. Buruarekin baiezeko keinuak egin.
- B. Era konfliktiboan porta daitezkeen pertsoneri edo egoerei bakarka aurre egin, eraso bat jasateko arriskua izan arren.
- C. Eskuei begia kendu edo balizko erasotzaileari bizkarra eman.
- D. Hitzeko erasoei erantzun, eta erasotzaileari aurre egin, iraindu, erronka jo edo erasotu.

557 - Pertsona politraumatizatu bat badago, nola begira daiteke zein den haren konorte-maila:

- A. Begiratzen da ea biktimak ahotsari erantzuten dion. baina ez dituen begiak berez irekitzen.
- B. Burua gorputz-enborrarekin lerrokatuta dagoen begiratzen da
- C. Pertsonaren identifikazioa egiaztatzen da.
- D. Zauri irekiak dituen begiratzen da.

558 - Noiz erabili ahal da torniketea?:

- A. Edozein hemorragia motatan.
- B. Erantzun guztiak okerrak dira.
- C. Gorputz-adar baten anputazio traumatikoaren eta zapaltze-sindromearen kasuan.
- D. Zauriaren odol-jarioa eteten ez denean.

559 - Zauri abdominalak:

- A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
- B. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- C. Ez da lesio kezagarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
